



Elkartrukerako, kideen arteko konfiantza ezinbestekoa da.

Denboraren bankua

Interesik gabeko mailegua

Diruaren gizartean bizi gara, denak du bere prezioa. Denboraren bankua joera hau aldatzera dator. Ez da dirurik behar besteek emandako zerbitzuak ordaintzeko. Gogoia aski da.

IURE ALTZIBAR

Argazkiak: Iñigo Azkona

ROSAK GALTZA berriak erosi ditu. Luzeegiak dituzenez bere herriko denboraren bankura eraman ditu, norbaitek konponduko dizkiolakoan. Consuelo jostunak egingo du lan hori eta honek erabilitako denbora Rosak beste zerbitzu batekin “ordaindu” beharko du. Jostunak, berriz, egindako lanaren ordainetan beharrezkoa duenean beste zerbitzu eskatuko du, Rosak emandako txekean zehaztutako ordu kopurua baitu berreskuratzeko. Horrela denboraren bankuetako leloa beteko dute: “Hartu denbora behar duzunean eta eman denbora ahal duzunean”.

Eguneroko lan txikiak egiteaz gain, ingurukoak ezagutzeko aukera eskaintzen du egitasmoak, horretarako bilerak egiten baitituzte noizean behin. La Peña bankuko lehendakariak dioenez, “gaur egungo gizartean jendea bakarrik sentitzen da eta horrelako proiektuekin besteengana hurbiltzen gara. Uneren batean guztiok elkarren beharra dugu”.

La Peñakoa, aitzindari

Bilboko La Peña auzoko Andre Berri emakume elkarteak kongresu batean izan zuen jada Bartzelonan martxan zegoen esperientzia honen berri. Gustatu egin zitzaion eta 2002. urtearen amaieran ekin zieten elkartrukeei. “EAEn aitzindariak izan ginen. Hala ere, ez genuen beldurrik izan, besteak beste Udaleko Hiritarrekiko Harremanetarako Sailaren laguntza baikenuen”, aitortu du Flori Vicente lehendakariak.

Partaide bakoitzak beste kideen zerrenda du eta bertan eskaintzen dutena eta beraien datuak agertzen dira. Norbaitek zerbitzu beharko balu, deitu eta berarekin hitzartu beharko luke. Hori da Abilen kasua. Duela egun gutxi eman du izena denboraren bankuan eta informatika ikasi nahiko luke. Eman dioten zerrendan bada hori eskaintzen duenik, beraz hari deitu beharko dio. Bera, trukean, ingelesa, frantsesa eta argaz-

kilaritza irakasteko prest dago.

Adin ezberdineta-ko berrogeita hamar kidek baino gehiagok hartzen du parte Bilboko egitasmoan eta jendea gehitu ahala eskaintzak are anitzagoak dira. Haurrak, adibidez, txakurrak ateratzeko prest agertzen dira. “Proiektua eskoletan sartzeko da asmoetako bat, haurrek beraien artean gauzak trukatzeko ikas dezaten, baina zaila izango da, eskoletan dagoeneko betebeharrak ugari baitago”, adierazi du Vicentek.

Aukeran dauden artean, sukaldaritza, masa-jeak, laguntasuna eta joste lanak dira gehien eskatzen diren zerbitzuak. Orain, berrikuntza modura, hitzaldiak emango dituzte. “Horretarako, kideen ezagutza baliatuko da; esaterako, kide bat psikoterapeuta da eta hari eskatuko zaio hitzaldia emateko. Denbora horren truke txeki bat eman- go zaio, burututako lanaren truke”.

Lehen urtemuga

Ermuko (Bizkaia) Auzopolisek oraintsu bete du lehen urteurrena eta garai batean auzotarrek zuten harremana hirietako ezaugarriekin lotu nahi izan dute. Maite Fernandez eta Inma Pagaldai sustatzaileen esanetan, “oraingo abantailak baliatuz lehen zegoena berreskuratzea da asmoa”.

Tokiko Garapenari buruzko ikastaro batean erabaki zuten ekimena garatzea eta gainerako denboraren bankuetan bezala, ordua da lanaren oinarria. Kasu honetan, ordea, bankuak berak egiten du koordinatzaile lana; berak jartzen ditu harremanetan elkartrukearen bi aldeak.

Fernandezek azaldu duenez, gehien eskatzen diren lanak eguneroko zailtasunei erantzuten dietenak dira: helduak edo haurrak jasotzea, jantziren bat jostea eta antzekoak. “Betiko gauzak dirudite, baina teknologia asko garatuta ere gizakien premiak berdina izaten jarraitzen dute”.

Josi egiten du, hain zuzen ere, Consuelo Vegak. Antonio Garcia senarrarekin batera, Ermuko denboraren bankuko partaide da eta konpontzeko praka batzuk jaso berri ditu. Egunkarian izan zuten Auzopolisen berri eta ideia gustatuta bertaratu egin ziren. “Txikitan, auzoan baratzea zuenak patata zakua eramaten zion bizilagunari eta hark haurrak zaintzen zizkion emaztea ospitalean zegoen bitartean”, azaldu du Vegak. Iraganeko oroitzen



Consuelo Vegak (ezkerrean) praktikak konpondu behar ditu. Inma Pagaldai ere (eskuinean) Ermuko denboraren bankuko kide da.

Eguneroko lan txikiak egiteaz gain, inguruak ezagutzeko aukera eskaintzen du proiektuak

duten ikasle suediarrentzako laguntza eskatu zuten. Gaztelania eta ingelesa ikastera etorri da eta heldu orduko azaldu zuten egoera bankuan. “Duela gutxi ingeleseko ahozko azterketa gainditzeko laguntza behar zuenez hona jotzea izan zen irtenbidea. Hemengo ingeles hiztunek lagundu zioten mintzapraktika egiten”, kontatu du Vegak. Ikasle suediarrek azterketa gainditzeko lortu zuten. Banku hauen sekretua eskatzean datza, bestela ez litzateke elkartruke egingo.

Denbora labur honetan eskaintza Debabarreneko herrietara zabaldu dute, eta horrek hainbat zailtasun dakartzan arren oinarrian gauza bera dela diote. “Haurrak jasotzeko garaian, adibidez, zailtasunak ekar litzake, ezin baita ezezagun bat bidali autobusera haien bila. Hala ere, beste herri batzuetan egin beharreko mandatuentzako lagungarri izan liteke”.

Urtearen poderioz, antzeko hedapena izan du La Peñako bankuak. Hasieratik adostu zuten ez zutela beraien lan eremua mugatuko. Ondorioz, Getxo, Bilbo, Basauri eta inguruko jendea hurbildu zaie. Are gehiago, Alemaniako emakume bat etorri zen euren zerbitzu eske. Gerora, jatorrizko herrira itzuli zen eta bere etxea eskaini zuen. Beraz, bankuko norbait hara joango balitz bidaian, bere etxean edo hango

bankuko norbaitenean har lezake ostatu. Beste herrialde batzuetan ere badaude horrelako aukerak: zubian hona etorri ziren emakume batzuk aurrez Italiako bankuko partaide baten etxean egon ziren. Kasu hauetan, kostuak sortzen dituzten zerbitzu guztietan bezala, eskatzen duenak ordaindu behar ditu gastuak.

Beraz, batzuek nazioartera begiratzeari ekin dioten bitartean, beste batzuk proiektu berberaren hastapenetan daude. Ermua eta La Peñakoaz gain, Gasteizen ere bada denbora trukatzeko aukerarik eta Bilboko beste auzo batzuetan zein Euskal Herriko hainbat txokotan sortzeko asmoa dago. ■